

# Ez duzu inoiz eskiatu eta irakasleak erran dizu zure txanda dela

AINARA ETXABIDE SAGARTZAZU

Lehen Hezkuntza 5 eta 6. mailak I. saria

Lesakako Tantirumairu Ikastola



**E**skiak lehenego aldiz  
jartzen dituztela hontan  
beldurrez itota nago  
nik erraten dut benetan  
derrigorrezkoa dugu  
txarretan edo onetan  
nik ez dut eskiatu nahi  
eroriko beldurretan

eta hor ni ibili naiz  
bai edo ez zalantzetan  
hor noa pentsatu gabe  
irri eta negarretan  
lagunak txaloka hasi  
irristaka elurretan.  
Ibiltzen hasi naiz eta  
erori egin naiz bertan.

Ipurdiko eder bat hartu  
ta ordun negarrez hasi  
irakasleak altxatu  
berriro eginarazi  
orduan kolpe ederra  
gainera egin zait hazi  
ezin nuela gehiago  
eta egin dut garrasi.  
Ez zait ezer ere ateitzen  
burua egin zait nahasi!  
Lagunek erran didate  
lortzen ari zara kasi  
jira ta bira ibiliz  
ez dut ezer irabazi  
ongi pasatu dut baina  
deus ere ez dut ikasi.